


DERECHO A MORIR DIGNAMENTE
DUINTASUNEZ HILTZEKO ESKUBIDEA
E U S K A D I

2024



Edukia

1	SARRERA.....	1
1.1	URTEAREN LABURPENA.....	1
2	ELKARTEAREN JARDUERA 2024AN.....	6
2.1	EKINTZA POLITIKOA.....	6
2.2	HEZKUNTZA- ETA HEDAPEN-EKINTZA.....	7
2.2.1	Hitzaldi-eztabaidak, hitzaldiak, solasaldiak, zineforumak, ikastaroak.	8
2.2.1.1	Hezkuntza-arloko jarduerak.	11
2.2.1.2	“Heriotza duina eta ilustratua” erakusketa Basaurin.	11
2.2.1.3	Lanbide arloko jarduerak.	12
2.2.2	Komunikabideetan agertzea (prentsan, irratan eta telebistan).	12
2.2.3	Sare sozialetan eta online komunikabideetan agertzea.	13
2.2.4	Idatzizko eta ikus-entzunezko materiala prestatzea eta zabaltzea.	13
2.2.5	Harremanak beste erakunde eta elkarte batzuekin.	13
2.3	ELKARTEGINTZA.....	15
2.3.1	Bazkideen bilakaera.	15
2.3.2	Bazkideen parte hartzea.	15
2.3.2.1	Zuzendaritza Batzordearen bilerak eta Batzarrek.	15
2.3.2.2	Gai espezifikoei buruzko lantaldeak.	16
2.3.2.3	Bazkideen topaketak.	17
2.3.3	Bazkideen prestakuntza eta informazioa ematea.	18
2.3.4	Arreta pertsonalizatua.	18
2.3.5	Zuzendaritza Batzordearen osaera.	20
2.3.6	Inbentarioa.	20
3	2024KO TXOSTEN EKONOMIKOA.....	21
3.1	2024KO KONTABILITATE BALANTZEA.....	21
3.2	2025ERAKO AURREKONTUA.....	23

1 Sarrera.

DMD-DHE Euskadi elkarte (IFZ-G20769659) irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta Euskal Autonomia Erkidegoan pertsona orok bere bizitza noiz eta nola amaitu nahi duen askatasunez erabakitze duen eskubidea defendatzen du, bereziki atzera bueltarik gabeko narriadura eta sufrimendu jasanezina dutenean. Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Orokorrean (AS/G/09652/2002) inskribatuta dago 2002ko otsailetik, eta hiru lurralde historikoetako bazkideek osatzen dute. Halaber, estatu mailako egitura federal baten parte da. Egitura horrek, beste talde autonomiko batzuekin batera, 1984an sortutako DMD (AFDMD) Elkarte Federala osatzen du.

Memoria honetan Euskadin 2024an heriotza duinaren inguruan jazotako gertaera nagusiak islatu nahi dira, baita urte horretan DMD-DHE Euskadi elkarteak izandako jarduera jaso eta baloratu ere.

1.1 Urtearen laburpena.

Heriotza duinaren esparruan, 2024 Eutanasia Arautzeko Lege Organikoa (LORE) indarrean dagoen hirugarren urte naturala izan da. Urte honetan, Euskadin, lege hori gauzatzeko normalizazio-prozesu geldoari eutsi zaio, bai herritarren artean, bai osasun-arloko eta arlo soziosanitarioko profesionalen artean. Hobekuntza txikia nabaritu da, eta ez da arazo garrantzitsurik antzeman, kasu puntualen bat izan ezik.

Nahiz eta lege horren erabilerak gora egiten jarraitzen duen estatu mailan, oso astiro egiten du, antzeko legeak indarrean egon ziren lehen urteetan izan zuten bilakaerarekin alderatuta (Herbehereak, Belgika edo Kanada), eta oraingoz ez dago argi zein izan ziren moteltasun horren arrazoiak. Izan ere, 2023an Euskadin erregistratutako eskaera kopurua (% 0,35, heriotza-kopuruarekiko) 2022koa baino pixka bat txikiagoa izan zen (% 0,38), eta hori ezohiko portaera da.

DMD-DHEren ustez, eutanasiaren eskaerak eta aplikazioa motel ezartzean eragina izan dezakeen faktoreetako bat da erakundeek legearen eta, oro har, bizitzaren amaierako herritarren eskubideen zabalkundean hartu duten profil baxua. Horri laguntzen diote, halaber, batetik bizitzaren amaierako plangintzak duen garrantziari buruz gizartean dagoen informazio eta prestakuntza falta, eta bestetik osasun eta arlo soziosanitarioko profesionalen prestakuntza mugatua zein bizi-amaieran dauden pertsonen dituzten eskubideak gauzatzeko aukerez egiten dieten transmisio eskasa.

Hala ere, 2024an, Euskadi Estatuko Autonomia Erkidegoetako bat izaten jarraitu zuen, Aurretiazko Borondateen Agirien bidez hiltzeko laguntza eskatzeko eta bizi-amaiera planifikatzeko eskubideak hobekien errespetatzen diren Autonomia Erkidegoetako bat.

Urteko ekitaldirik aipagarrien artean, aipatzekoak dira estatu mailan gertatutakoak (Euskadin oihartzun mediatikoa izan zutenak):

- Osasun Ministerioak abenduan argitaratzea [hiltzeko laguntza emateari buruzko 2023ko urteko ebaluazio-txostena](#). AFDMDk estatu mailako txosten honen [aurretiazko ebaluazioa](#) egin zuen.¹
- 2024an, heriotza duinaren gaiak presentzia nabarmena izan zuen Espainiako ikus-entzunezkoetan, eta oihartzun mediatiko handia izan zuten zenbait film, telesail eta dokumental estreinatu ziren: Pedro Almodovarren “La habitación de al lado”, Mort jaialdian

¹ Dokumentu honek Interneteko web-orri eta edukietarako esteka ugari ditu. Argitasuna eta eskuratzeko erraztasuna direla eta, testuan bertan txertatuta daude, gorrit [azpimarratuta](#). Edukita sartzeko, sakatu saguaren ezkerreko botoia markatutako testuaren gainean.

saritua; Carlos Marqués-Marcet-en “Polvo serán” film musikala, Torontoko jaialdian saritua; Joaquín-Gavras-en “El último suspiro” filma, Donostiako Zinemaldian aurkeztua; TBko “Rapa” seriea, “La pura realidad” film labur Castilla-LaManchako zine sozilarren jaialdian saritua; “La decisión de Joaquina” dokumentala Valentziako eutanasia kasu baten inguruan; “Viure la mort” dokumental katalana, etab.

- Ekainaren 25ean bete zen LORE indarrean sartu zeneko hirugarren urteurrena. Horren harira AFDMDk [prentsaurreko](#) bat deitu zuen, Madrilen duen egoitzan, eutanasiaren aplikazioaren balorazioa egiteko une horretaraino eskuragarri zeuden urteko datuetan oinarrituta. Garrantzitsua izan zen hiltzeko laguntza eskaera onartzeko zailtasunak izan zituzten pertsonen bi senideren testigantza. Ondorioak [“Eutanasia arautzeko lege organikoaren \(LORE\) garapenaren ebaluazioa legea indarrean sartu eta hiru urtera”](#) dokumentuan jaso ziren.
- Urrian, Alderdi Sozialistak lege-proposamen bat aurkeztu zuen Diputatuen Kongresuan, pazientearen autonomiari buruzko 41/2002 Legearen 11. artikulua eguneratzeko. Artikulu horrek aurretiazko borondateak emateko eskubidea arautzen du. Legebiltzarreko eztabaidan EAJko (aurka bozkatu zuen) eta EH Bilduko (alde bozkatu zuen) diputatuak parte hartu zuten. Azkenean, atzera bota zuten proposamena. [Lotura honetan](#) ikus daitezke esku-hartzeak. Azpimarratzekoa [EH Bilduko diputatuak](#) heriotza duinerako eskubidearen alde egindako defentsa.
- Abuztuan, aurrekaririk gabeko judizializazio kasu bat gertatu zen, Bartzelonan 24 urteko neska baten eutanasia eskaera bat, Mediku arduranak eta kontsultoreak zein Catalunyako Batzordeak onartu zutena, baina haren aitak, Abokatu Kristauen elkarteak ordezkaturak, administrazioarekiko auzibidetik errekurritu zuena. LOREk eskatzen dituen berme guztiekin onartutako lehen eskaera kasua da, non hirugarren pertsona batek errekurritzen duen. Dokumentu hau idazten den egunean (2025eko martxoa), 7 hilabete baino gehiago itxaroten egon ondoren, eskatzailearen aldeko epaia eman berri da, baina errekurtsioa jartzeko aukerarekin, eta irekita uzten da hirugarren pertsonak LOREn zehaztutako prozesuaren arabera jada onartuta dauden eutanasia-eskaerak geldiarazteko aukera. DMD-DHErentzat egoera kezkarria da, lege hau gauzatzeko aurreikusi ezin diren ondorioak dituen, baita Euskadin ere.

Euskadin, aldiz, hauek izan ziren gertaera aipagarrienak, ordena kronologikoan:

- Urtarrilaren 30ean, Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa arautzen duen 66/2018 Dekretua aldatzea onartu zuen, Osakidetzako profesionalak (medikuek eta erizainek), haiek hala nahi izanez gero, bete ahal izan dezaten Erregistroko pertsonal delegatuaren funtzioa, eta ABDak sinatu eta erregistratu ahal izan zituzten.

Helburua zen langile gehiago jartzea eta herritarrei ABDak sinatzeko eta erregistratzeko prozesua erraztea, 4 eta 7 hilabete arteko itxarote-zerrendak arinduz Araban eta Gipuzkoan, eta urtebete Bizkaian, une horretan. [9/2024 Dekretu](#) berria otsailaren 15eko EHAA-n argitaratu zen.

Hedabide ugari eman zuten albiste horren berri: bi artikuluko Noticias de Álava egunkarian ([1](#) eta [2](#)), Radio Nacional en el País Vasco [albistegia](#) (7:00-5:20 minutuan). Radio Euskadiko [Crónica de Euskadi saioa](#) (19:50-22:20 minutuan), [El Diario Vasco](#), [Irekia](#) Eusko Jaurlaritzaren informazio eta herritarren parte-hartzeko orria, [Osaraba](#) webgunean.

Aipatzekoa da ere abuztuaren 29an Radio Vitorian dekretu berriaren sustatzailea den Iñaki Saralegui Osakidetzako medikuari egindako [elkarriketa](#).

DMD-DHEn zalantzak zeuden neurri horren eraginkortasun praktikoari buruz; izan ere, beste zeregin bat zekarren lehen mailako arretako eta ospitaleko arretako profesionalak

zegokien lan-kargan eta erantzukizunetan. Dokumentu hau idatzi den datan, 2024ko ABDen inskripzioei buruzko datuak argitaratuta zeudenean (2025eko otsailean), ikusten da erregistro-prozedura berria inskripzioen % 3,8tan baino ez dela erabili. Hala ere, aitortzen da ABDe egiteko beste bide bat dela, profesionalen inplikazioa sustatzen duena, eta espero izatekoa dela etorkizunean gehiago erabiltzea.

- Arlo politikoa apirilaren 21ean egindako Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak izan ziren 2024ko gertaera garrantzitsu bat. Espero zen bezala, gobernu-aldaketak antolaketa-aldaketak ekarri zituen Osasun Sailean, eta aldaketa horiek bizitzaren amaieran pertsonen arretaren garapenean duten eragina ikusteko dago oraindik.

Hauteskunde horien harira, alderdi politikoen (EH Bildu, Elkarrekin-Podemos eta Sumar, nagusiki) eta herritarren plataformen ekimenak izan ziren osasun publikoaren alde, eta horietan, bizitzaren amaierako pertsonen eskubideen eta arretaren eta heriotza duinaren gaia kontuan hartu zen haien hauteskunde-programetan, parlamentuko jardueran eta aldarrikapenetan. Alderdi politiko eta plataforma horiek gonbidatuta, DMD-DHEk parte hartu zuen eta bere aldarrikapenekin bat egin zuen (ikus xehetasun gehiago [Ekintza politikoa](#). atalean).

- Ekainaren 25ko bi gertaera garrantzitsu aipa daitezke: LORE indarrean sartu zeneko 3. urteurrena betetzea eta EBEBk prestatutako [eutnasiari buruzko urteko txostena](#) Sailak argitaratzea. Urriaren amaieran, Heriotza Duinaren Nazioarteko Eguna (azaroaren 2a) ospatu aurreko urrats gisa, txosten horren [balorazioa](#) plazaratu zuen DMD-DHEk.

Ekainaren 25ean bertan, Osasun Sailak 2023an [erregistratutako ABDen datuak](#) ere argitaratu zituen.

Bi gertaera horiek oihartzun handia izan zuten komunikabideetan:

- [elkarrizketa](#) (euskaraz), hilabete lehenago (maiatzaren 20an) Euskadi Irratiko *Faktoria* saioan, Itsaso Bengoetxea Euskadiko CGyEko presidenteari, non LOREren aplikazioari eta DVAen erregistroari buruzko zenbait datu aurreratu zituen.
- Elkarrizketa Deia egunkarian ere argitaratu zen bi artikulutan:
 - [“Heriotzaz hitz egin behar da, jaiotzen garenetik derrigorrezko bakarra delako”](#).
 - [“Hiru euskal herritarrek laguntza medikoa jasotzen dute hilero hiltzeko”](#).
- [Elkarrizketa](#), *Radio* Euskadiko Boulevard saioan, Itsaso Bengoetxeari, LOREren hiru urteko aplikazioari buruz.

Berria egunkariak ere zabal eman zuen LOREren 3. urteurrenaren berri, hainbat artikulua argitaratuz (euskaraz):

- [“Norberak eskatuta, adio”](#) Itsaso Bengoetxea eta Geno Otxando, Nafarroako Heriotza Duinaren Behatoki arduraduna elkarrizketatuta.
- [“Hitzaren jabe, eutanasiara: lau bizipen”](#), LORE erabili zuten pertsonen hiru senideren testigantzekin eta eutanasia eskaera izapidetzen ari den pertsona baten testigantzekin.
- [“Zaharren egoitzetan nola findu arta”](#), zahar-egoitzetan LORE erabiltzeko arazoei buruzkoa.
- [“«Hiltzen ikasteko era» bada, eta laguntza ere bai”](#) ABDren erabilerari buruz, Iñaki Olaizola eta Arantza Garaialde, Gipuzkoako DMD-DHE elkarteko bazkideen partaidetzarekin.

[Hemen](#) ikus daiteke artikulua horien paperezko edizioa.

- Aipagarria da, halaber, urriaren 17tik 19ra Psikiatriako XXVII. Kongresu Nazionala egin zela Donostian, eta buruko gaixotasunen kasuan eutanasiaren gaia landu zela (albistea [El Diario Médico](#) eta [El Periodico](#) egunkarietan).

Gai zehatz horri buruz, Euskadiko EBEBk ekainaren 6an jada egin zuen Konstituzio Auzitegiak 2023an emandako epaiari buruzko [azalpenak](#) biltzen dituen oharra. Epai horrek, LORE erabat konstituzionalizat jo zuen arren, nahasmendua eragin zuen legea buruko gaixotasun kasuetan aplikatzeari dagokionez.

2023an Euskadin LOREren aplikatzeari buruzko datuei dagokionez (Sailak argitaratutako txosten ofizialean jasota) honako hauek azpimarra daitezke:

- 77 eutanasia eskaera erregistratu ziren (99 2022an), eta horietatik 48 baimendu ziren (%62, %30 2022an). 15 pertsona hil ziren izapideak egin bitartean (eskaeren % 19; 2022an, % 56). Eskabide kopurua txikiago izan zen, arina baina esanguratsua, eta tramitazioan zehar hildakoak ere jaitsi ziren. EBEBren txostenak ez ditu aztertzen aldaketa horiek.
- 11 eskaera (%18) ABD bidez egin ziren (ez dira ezagutzen baimendu zirenak).
- 77 eskaeretatik 62 iritsi ziren EBEBko egiaztatze-fasera. Horietatik:
 - 9 Araban sortuak ziren, 25 Bizkaian eta 28 Gipuzkoan.
 - 29 Lehen Mailako Arretan sortu ziren, 23 ospitaletan eta 10 eremu soziosanitarioan. 6 eskaera arlo pribatutik zetozen.
 - 45 eutanasia egin zituzten (6 Araban, 16 Bizkaian eta 23 Gipuzkoan). Horietatik 24 ospitalean (5 organoak emanda), 16 etxean eta 5 zentro soziosanitarioan.
2023an egindako eutanasiak urtean Euskadin izandako heriotzen %0,2 izan ziren, 2022ko tasa bikoiztuz (beste herrialdeetako %2 eta %5 arteko tasetatik urrun oraindik).
 - Eskaera egin zuten pertsonen adina 26 eta 100 urte artekoa izan zen, 71 urteko medianarekin eta 73 urteko modarekin.
 - Eskaeren % 32 baliaezintasuna eragiten duen gaixotasun kroniko batekin lotuta egon ziren, eta gainerako % 68a gaixotasun aurreratu sendaezin batekin. 2022arekiko ehunekoak alderantzikatu egin dira, egoera normalizatuz eta beste herrialde batzuetan gertatzen denarekin parekatuz.
 - Eskaera egin zenetik eutanasiaren ondorioz hil arteko batez besteko denbora 42 egunekoa izan zen (2022an 56), pertsonen borondatezko etenak barne.
 - Ez da daturik ematen kontzientzia-eragozpenaren eraginari buruz.
 - Eskatzaileen %48,4 zainketa aringarrien jarraipen-prozesuan zeuden (%62 gaixotasun aurreratu eta sendaezinen kasuetan).

DMD-DHEk LOREren aplikazioari buruzko [balorazio](#) zehatza egin zuen txosten horretan oinarrituta, eta urriaren amaieran bidali zitzaion Osasun Sailari eta EBEB. Oro har, aurreko urtearekin alderatuta, eskaeren kudeaketa hobetu egin zela ikusi zen, baina ez zen behar bezala aztertu hainbat aspektu garrantzitsu: eskaerak baztertzeko arrazoiak, desberdintasun geografikoak, kasu batzuetan detektatutako zailtasunak. Hobekuntza-proposamenak ere ez ziren egin. Era berean, eskaera problematikoei arreta emateko eta jarraipena egiteko eta EBEBri laguntzeko “unitate administratibo” bat gaitzea komeni zela esan zen. Bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna bermatzeko 11/2016 legearen betetze-mailari buruzko txostena ere eskatu zen, ordurako 5 urteko atzerapena baitzegoen.

2023 urtari dagokion ABDen izen-emateen datuen inguruan, 2022ko datuekin alderatuta, igoera handia gertatu da (% 70): 9.194 izen-emate berri izan dira (1.467 Araban, 4.908 Bizkaian eta 2.819 Gipuzkoan). Osasun sailetik kanpoko erakundeek inplikazioak izan duen eragina nabari da Bizkaian eta Gipuzkoan ([Portugaletako udala](#), [Bizkaiko Medikuen Elkargoa](#), [Agurtzen proiektua](#), DMD-DHEk Gipuzkoan antolatutako tailerrak, etab.). 2023aren amaieran 50.071 ABD zeuden inskribatuta guztira.

Bestalde, Berria egunkarian jasotakoaz gain, Euskadiko zenbait hedabidetan 2024an argitaratutako testigantza hauek ere nabarmendu behar dira:

- Otsailaren 4an Euskadi Irratiko *Osasun Etxea* saioan, "[Olatz Genbero: eutanasia eskatu zuen aitak. F. Zubia, minbiziaz](#)".
- Irailaren 8a. Pertsona baten testigantza El Correoko zuzendariari bidalitako gutun baten bidez, "[Eutanasia](#)" izenburuarekin.
- Abenduak 22. Naiz egunkarian Gasteizko gaixo baten "[Mi queja](#)" protesta gutuna, arreta eman zioten profesionalengandik hiltzeko laguntza eskatzeko eskubidearen inguruan jasotako informazio txarragatik kexu. Pertsona hori 2025eko urtarrilean hil zen, nahi zuen eskaera egin ahal izan gabe. Familiak kasua publiko aurrean zabaldu zuen, El Correo eta [Naiz](#)-en gutun bidez, eta eskerrak eman zizkien DMD-DHEri eta Gasteizko AECCri jasotako informazio eta babesagatik.

DMD-DHE Euskadiren 2024ko jarduerari dagokionez, alderdi hauek nabarmendu daitezke:

- Arlo politikoan, hauteskunde-programetan pertsonen bizitzaren amaierako eskubideak eta heriotza duina kontuan hartu zituzten alderdi politiko batzuekin (EH Bildu, Sumar eta Elkarrekin-Podemos, nagusiki) harremanak areagotu ziren. Harreman horiek Eusko Legebiltzarrean eta Arabako Batzar Nagusietan proposamenak egitea ahalbidetu zuten, baina ez zuten espero zuten emaitza lortu.
- Hedapenari dagokionez, Basauriko Emakumeen Etxean hitzaldi, tailer, artikulua eta esku-hartze ugariarekin eta "Heriotza Duina eta Ilustratua" erakusketa artistikoarekin garatutako jardura bizia.
- Elkartearen barne-jardunean, honako hauek aipatu behar dira:
 - Elkartearen ABD-eredua hobetzeko ahalegina, hura ulertzen laguntzeko.
 - Bazkideentzako prestakuntza-jardura handia: bi *online* ikastaro eta aurrez aurreko topaketa bat estatu mailan.
 - Arreta pertsonalizatuko zerbitzuaren barruan, LOREekin zerikusia duten kontsulta ugari erantzun dira, eta arreta eta kasuen azterketa egituratzeko eta antolatzeke ahalegina egin da.
 - Elkartearen sorrerako helburuak berreskuratzeko beharraz aritu gara, elkartearen posizionamenduan zein diskurtsoan. LOREren ezarpenaren jarraipenean zentratutako hiru urteren ondoren, eta jardura hori utzi gabe, eztabaida-prozesuak hasi dira, bai DMD-DHEn, bai AFDMDn. Gaixotasun mentalen kasuetan elkarte gisa hartu beharreko diskurtso, bizi-nekeagatik hil nahi direnen kasuak, LOREren alderdi eztabaidagarriak eta EBEBren alde aurretiko egiaztapena izan ditugu mintzagai besteak beste. Atariko ondorio batzuk badaude, baina hausnarketa prozesuak aurrera jarraitzen du.
 - Abenduaren 13an AFDMD sortu zeneko 40. urteurrena ospatzea. Estatu mailan ekitaldi ugari egin ziren eta sare sozialetan [bideo](#) origarri bat zabaldu zen, pertsonaia ospetsuen parte hartzearekin. Euskadin, baliabideak mugatuak zirenez, ez zen jardura berezirik egin.

Hurrengo kapituluetan, elkartearen 2024ko jardueraren xehetasunak ematen dira. Jardura gehienak Zuzendaritza Batzordeko kideek eta hiru lurraldeetako bazkide aktibistek egin zituzten, eta bidezkoa da haien konpromisoa eta ahalegina eskertzea.

2 Elkartearen jarduera 2024an.

DMD-DHE Euskadiren jarduerak hiru jarduera-eremutan kokatzen dira: a) ekintza politikoa, b) hezkuntza- eta hedapen-ekintza eta 3) elkargintza.

Esparru horietako bakoitzean, aurrera eramandako jardueren helburua elkarteari buruzko ezagutza garatzea eta zabaltzea da, pertsona guztientzako heriotza duina lortzeko eta bizitzaren amaieran pertsona horiek dituzten eskubideen inguruko ezagutza ere (bereziki Aurretiazko Borondateen Agiriari (ABD) eta Eutanasiaren Legea (LORE)), eta eskubide horiek zaintzea eta ebaluatzea.

Ondoren, aipatutako hiru esparruetako jarduera erangarrienak aipatuko ditugu.

2.1 Ekintza politikoa.

Erakunde publikoekin, pribatuekin eta alderdi politikoekin lotutako jarduera biltzen du, bizitzaren amaieran pertsonen eskubideak arautzen dituzten legeak hobetzera, erakundeak horiek betetzeko eta zabaltzeko konpromisoa hartzera eta ez-betetzeak edo aplikatzeko arazoak salatzen bideratutakoa.. 2024an jarduera eta gertaera hauek nabarmendu daitezke:

- Urtarrilaren 4an, Arabako bazkide bat Arabako Lurralde Ordezkaritzako Erregistroaren ikuskariarekin hitz egiten aritu zen ospitaleetan ABDe egiteko aukerari buruz. Arrazoia arreta pertsonalizatuko kasu bat izan zen, non ingresatutako pertsona batek ezin izan baitzuen ABDe ospitalean egin, eta jakinarazi zitzaion alta emandakoan Osasun Zentroan edo Lurralde Ordezkaritzan egin beharko zuela.

Ez zen inolako emaitza erabakigarriarik lortu. Hala ere, aurreko atalean aipatu den bezala, urtarrilaren amaieran Osasun Sailak 9/2024 Dekretua onartu zuen, zeinaren bidez, gure ustez, aipatutako arazoa konpon zitekeen (beti osasun-langileen borondatearen baitan).

- Martxoaren 11n, Elkarrekin-Podemosek Arabako Batzar Nagusietan duen talde parlamentarioak bilera batera gonbidatu zuen DMD-DHE, martxoaren 13ko Osoko Bilkuran BBNNetan aurkeztu behar zuen mozioaren xehetasunez mintzatzeko. Helburua zen Arabako Foru Aldundiak konpromisoa har zezan, bere eskumeneko zentro soziosanitarioetan, pertsonak beren bizitzaren amaieran dituzten eskubideei buruz informazioa herritarrei zabaltzea eta profesionalak prestatzea, baita eskubide horien erabilera errazteko eta ezarpenaren jarraipena egiteko.

Mozioa 2023ko azaroan eskatu zen Arabako DMD-DHE taldeak Arabako Batzar Nagusietako Gizarte Politiken Batzordean egindako agerraldiaren ondorioz.

Azkenean, mozioa atzera bota zuten aldeko 17 botorekin (EH Bildu eta Elkarrekin-Podemos) eta kontrako 32rekin (EAJ, PSE eta PP). Arabako DMD-DHE taldeko bi bazkide izan ziren bertan, entzule gisa.

Martxoaren 26an, Elkarrekin-Podemosek beste mozio bat aurkeztu zuen Arabako Batzar Nagusietako Gizarte Politiketako Batzordean, “Baliabide eta zerbitzu soziosanitarioen gida” eguneratzeko eskatuz, bizitzaren amaierako eskubideei buruzko informazioa, gomendioak, prozedurak eta izapideak eta laguntza-baliabideak barnera zitezen, eskumeneko zentro eta egoitzetan prestakuntza eta dibulgazio-jarduerak egiteko, eta arreta soziosanitarioko foru-zerbitzuetan heriotza duinari buruzko aholkularitza ere txerta zedin.

Bigarren mozio hau azaroaren 28an eztabaidatu zen, eta atzera bota zuten, EAJ eta PSEren aurkako botoekin eta EH Bildu eta PPren abstentzioarekin. Horren ordez, EAJ eta PSEren proposamen bat onartu zen, Aldundiari eskatuz “Erabakien Plangintza aurreratua ezartzeko gida” bat egin zedin.

- Irailaren 13an, Osasun Sailarekin bilera bat eskatu zen posta bidez, zuzendaritza-talde berriari gure elkartearen berri emateko, eta Euskadin hiltzeko laguntza medikoari buruzko 2023 txostenari (EBEBk argitaratu zuen ekainean) [DMD-DHEk egindako balorazioa](#) aurkezteko. Ez zen erantzunik jaso.
- Urriaren 31n, Heriotza Duinaren Nazioarteko Eguna (azaroaren 2a) ospatu aurreko urrats gisa, Euskadin hiltzeko laguntza medikoari buruzko 2023 Txostenaren aipatutako [balorazioa](#) eta hainbat hedabideetara zabaldutako [prentsa-komunikatua](#) igorri zitzaien Osasun Sailari, Euskadiko EBEBri eta Eusko Legebiltzarreko talde politikoei.
- Abenduaren 2an Eusko Legebiltzarreko Osasun Batzordera [agerraldi eskaera](#) bidali zen, LORE indarrean sartu zenetik hiru urte baino gehiago igaro direnean, heriotza duinerako eskubidearen garapenaren egungo egoeraz DMD-DHEk duen iritzia azaltzeko. Legebiltzarreko taldeei ere eman zitzaien eskaera horren berri. Orain arte ez da erantzunik jaso.

Bestalde, EH-Bilduko legebiltzar-taldea ere kezkatuta egon da, urtean zehar, osasun-arloan duen garapen-programaren barruan bizitzaren amaieran dauden pertsonen arretarekin eta zaintzarekin:

- Martxoan, EH-Bilduk gonbidapena bidali zion DMD-DHE Euskadiri, apirilaren 21eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei begirako Osasun Programaren aurkezpena joateko, Gasteizko Artiumeko auditorioan (martxoaren 20an) izan ziren Arabako DMD-DHE taldeko lau bazkide.
- Uztailean, EH Bilduk [galdera](#) bat aurkeztu zuen, Osasun Sailari zuzenduta, Euskadiko EBEBren 2023ko txostenaren inguruna. Irailean erantzun zioten (aurreko loturan ikus daiteke erantzuna).
- Irailean, erakunde politiko horrek DMD-DHE ere gonbidatu zuen heriotza duinarekin lotutako proposamenak zehazteko bilera batera, Eusko Jaurlaritza berriak abian jarritako “Euskal Osasun Itunean” kontuan hartzeko helburuarekin. Bilera urriaren 16an egin zen bideokonferentzia bidez.
- Urriaren 31n, EH Bilduk [informazio-eskaera](#) bat aurkeztu zuen Eusko Legebiltzarrean, Osasun Sailari zuzendua, “Aurretiazko Borondateen zenbat agiri egiten diren” izenburupean. Saila [erantzuna](#) eman zuen azaroaren 29an, 2022 eta 2023 urteetako datu estatistikoak zehaztuz.

Sumar talde parlamentarioa ere apirilean jarri zen harremanetan DMD-DHErekin, bizitzaren amaierako arretari buruzko hainbat alderdi txertatzeko bere hauteskunde programan.

Bestalde, DMD-DHE lankidetzan aritu da herritarren elkarrekin eta plataformekin osasun publikoaren defentsan, bai herritarrekin osasun-sistema publikoaren pixkanakako narriaduren sentimendua partekatzeagatik, bai sistema horren kalitateak bizitza amaieran pertsonen arretan duen eragin nabarmenagatik, bereziki autonomia pertsonalaren aldeko eskubideen eremuan: hiltzeko laguntza eskatzea eta aurretiazko borondateen adieraztea. DMD-DHEk urtean zehar parte hartu du Osasunaren aldeko Euskal Foroan eta Euskadiko osasun publikoaren aldeko herritarren plataformek martxoaren 16an Bilbon, Donostian eta Gasteizen deitu zituzten osasun publikoaren aldeko manifestazioetan, plataforma horiek argitaratu zuten [manifestua](#) babestuz.

2.2 Hezkuntza- eta hedapen-ekintza.

Arlo honetan helburua da gizarteari informazioa ematea bizitzaren amaierako prozesuan dituen eskubideei buruz, hiltzeko laguntza eskatzeko eskubidea barne, heriotza duinari buruzko elkartearen filosofia zabaltzea eta pertsona bakoitzak bizitzaren amaiera nola nahi duen

aukeratzeari buruzko tabua haustea. Prestakuntza-jarduerak ere sartzen dira, herritar guztiei zuzendutakoak nahiz lanbide- eta hezkuntza-erakundeei dagozkionak.

Jarduerak anitzak dira, besteak beste hitzaldi-solasaldiak antolatzea, mahai-inguruetan parte hartzea, topaketak antolatzea, zineforumak, prentsako, irratiko eta telebistako albistegietan agertzea, sare sozialetan parte hartzea eta informazio-liburuxkak zabaltzea. Ondoren, ekitaldia antolatzen zein parte hartzen, DMD-DHE presente egon zen 2024ko ekitaldi nagusiak bildu dira.

2.2.1 Hitzaldi-eztabaidak, hitzaldiak, solasaldiak, zineforumak, ikastaroak.

- Urtarrilak 15. Zineforuma UPV/EHUko Bizkaia Aretoko Baroja aretoan. “Supernova” filma proiektatu zen eta, ondoren, DMD-DHEren jarduerari eta helburuei buruzko solasaldia izan zen. 100 pertsona inguru bertaratu ziren (edukiera osoa).



- Urtarrilak 16 eta 23. “Bizi-testamentua nola egin” hitzaldi-tailerra Lasarbe areto balioaniztunean eta Donostiako Anoetako liburutegian, hurrenez hurren. 30 lagun inguru bertaratu ziren saio bakoitzean.
- Urtarrilak 18. Hitzaldia eta mahai-ingurua Arabako ATECE (Hartutako Kalte Zerebralaren Elkarte) elkartearen egoitzan, “Aurretiazko *Borondateen Dokumentuaren garrantzia*” gaiari buruz. 12 lagun bertaratu ziren.
- Urtarrilak 13. Bilboko eta Donostiako hainbat zinema-aretotan “La memoria infinita” film-dokumental txiletarraren proiektzioa, non Alzheimer duen pertsona baten narriadura progresiboa kontatzen baita.
- Urtarrilak 30. Hitzaldia Debabarreneko Esperientzia Eskolan (Eibar): “*Hiltzea, modurik onenean*”. 25 lagun inguru bertaratu ziren.
- Otsailak 1. “Heriotza Duina”ri buruzko hitzaldia, Donostiako Eragin kultur elkarteak antolatuta, Arrupe aretoan (Jesuiten eliza), Iñaki Olaizola antropologo eta DMD-DHE Gipuzkoako bazkideak emana.
- Otsailak 20. Araiako (Araba) Atzoko Gazteak jubilatutako etxean “Aurretiazko *Borondateen Dokumentuaren garrantzia*” hitzaldia eta mahai-ingurua. 20 lagun inguru bertaratu ziren.
- Otsailak 20. Hitzaldia Ermuko Emakumeen Etxeko Jabekuntza Eskolan: “*Pertsona orok bere gorputzaz eta bizitzaz askatasunez gozatzeko duen eskubidea*”.
- Otsailak 21. Hitzaldia eta mahai-ingurua Gasteizko Ibaiondo Gizarte Etxeko liburutegian, “*Norberaren bizitzaren eskuragarritasuna eta Aurretiazko Borondateen Dokumentuaren garrantzia*” gaiari buruz. 50 lagun inguru bertaratu ziren.
- Otsailak 22. Euskadiko Filmategiaren eskutik “Plan 75” film japoniarraren proiektzioa Gasteizko Artiumen (2022an estreinatua): eutanasiarekin kritikoa gizarte zahartu baten testuinguruan bakardade eta mendekotasun egoeren irtenbide gisa planteatzen bada. Gasteizko Bizanek antolatutako zineforum batean ere eman zuten film hori, Florida zinemetan, urtarrilaren 25ean.
- Otsailak 20 eta 27. ABDri buruzko hitzaldi-tailerra, Donostiako Eragin kultur elkarteak antolatuta. 40 lagun inguru bertaratu ziren.

- Otsailak 27. ABDri buruzko hitzaldi-tailerra Errenteriako Xenpelar Etxean, Laikotasuna elkarteak antolatuta. 50 lagun inguru bertaratu ziren.
- Otsailak 27. DVAr buruzko hitzaldi-tailerra Debabarreneko Esperientzia Eskolan (Eibar). 16 lagun inguru bertaratu ziren.
- Otsailak 27. “Heriotza ez ote da gai feminista bat?” gaia hartuta hitzaldi-tailerra, Basauriko Emakumeen Etxean egin zen *Heriotza Duin eta Ilustratua* erakusketaren programaren barruan.
- Martxoak 7. Gasteizko Aldabe Gizarte Etxeko Zahartze Osasuntsuaren Taldeak antolatutako hitzaldia: “Aurretiazko Borondateen Dokumentuaren garrantzia”. 15 lagun bertaratu ziren.
- Apirilak 8. Hitzaldia eta mahai-ingurua Berangoko Nagusien Etxean (Bizkaia), ABDri buruz. 15 lagun inguru bertaratu ziren.
- Apirilaren 30ean eta maiatzaren 14an. “Bizi-testamentua nola egin” hitzaldi-tailerra Elgetako (Gipuzkoa) Espaloia Kafe Antzokian. 25 lagun inguru bertaratu ziren.



- Maiatzak 3. “Eskubideak bizitzaren amaieran” hitzaldi-solasaldia, Zolloko eta Arrankudiagako (Bizkaia) Emakumeen Sarea elkarteak antolatuta. 17 lagun inguru bertaratu ziren.
- Maiatzaren 3an eta 10ean. Gazte Izanak jubilatuta eta pentsionisten elkarteak antolatuta, “Bizi-testamentua nola egin” izenburuko hitzaldi-tailerra Oiartzungo (Gipuzkoa) Landetxe Kultur Aretoan. 40 lagun inguru bertaratu ziren.
- Maiatzak 10. Hitzaldia eta mahai-ingurua El Burgoko (Araba) Udalaren lokal batean, Arabako Foru Aldundiaren Aula+55 programaren barruan antolatuta, “Aurretiazko Borondateen Dokumentuaren garrantzia” gaiari buruz. Asistentzia faltagatik bertan behera geratu zen.
- Maiatzak 22 eta 29. Itsasondoko (Gipuzkoa) Bizi Nahi erretiratuen elkarteak antolatutako hitzaldi-tailerra: “Bizi-testamentua nola egin”. 16 lagun inguru bertaratu ziren.
- Maiatzak 22 eta 29. ABDri buruzko hitzaldi-tailerra Donostiako Egiatarra erretiratu eta pentsiodunen elkartearen. 15 lagun inguru bertaratu ziren.
- Maiatzak 30. Hitzaldia eta mahai-ingurua Ermuko Emakumearen Topaguneko Jabekuntza Eskolan: “Bizitzaren amaieraren inguruko kontzeptuak eta eskubideak”.
- Ekainak 20. Hitzaldia eta mahai-ingurua Duranako Sologana Zentro Soziokulturalean (Araba), Arabako Foru Aldundiaren Aula+55 programaren barruan antolatuta, “Aurretiazko Borondateen Dokumentuaren garrantzia” gaiari buruz. 6 pertsona bertaratu ziren.
- Abuztuak 3. Hitzaldi-solasaldia Gesaltza Añanako (Araba) udal-bolatokian, Arabako Foru Aldundiaren Aula+55 programaren barruan antolatuta, “Aurretiazko Borondateen Dokumentuaren garrantzia” gaiari buruz. 30 lagun inguru bertaratu ziren.
- Irailak 12 “Heriotza duina, eutanasia eta erabakitze eskubidea” hitzaldia Aguraingo (Araba) Harresi Aretoan, Aguraingo Osasun Mentalaren urteko jardunaldiaren egitarauaren barruan. 80 lagun inguru bertaratu ziren.

- Irailak 26. Eibarko Debabarreneko Esperientzia Eskolako 19. promozioeko partaideek ABDe egiten laguntzeko eta informatzeko abian jarritako Agurtzen proiektuaren barruan, Gipuzkoako DMD-DHE elkarteak bizitzaren amaierari eta ABDri buruzko hitzaldi-tailerra eman zuten Eibarko Kultur Etxeko Portalea aretoan. 100 lagun inguru bertaratu ziren.
- Irailak 27. Hitzaldia eta mahai-ingurua Herrandarren Bizan adinekoen zentroan (Gasteiz): “Eutanasia arautzeko Legea hiru urtez indarrean”. 20 lagun inguru bertaratu ziren.
- Urriak 8 eta 15. Irura Bizi elkarteak antolatutako hitzaldi-tailerra Irurako (Gipuzkoa) Herri Eskolako areto nagusian, “*Bizi-testamentua nola egin*” izenburupean. 16 lagun inguru bertaratu ziren.
- Urriaren 16an eta azaroaren 7an. Mugarik Gabeko Aringarrien 2024ko Hezkuntza Programaren barruan dolu prozesuan laguntzeko XIX. Jardunaldiak egin ziren (urriaren 16an Tolosako udaletxeko kultur aretoan eta azaroaren 7an Donostiako Okendo kultur aretoan). Bertan, Iñaki Olaizola antropologoak (DMD-DHEko bazkidea) “Dolua”ri buruzko hitzaldia eman zuen.
- Urriak 21. San Gines Esperientzia Elkarteak antolatuta, “Aurretiazko *Borondateen Dokumentuaren garrantzia*” hitzaldia eta mahai-ingurua Bastidako Jubilatuen Etxean (Araba). 30 lagun inguru bertaratu ziren.
- Urriak 24. Hitzaldia eta mahai-ingurua Ermuko Emakumearen Topaguneko Jabekuntza Eskolan: “Bizitzaren amaieraren inguruko kontzeptuak eta eskubideak”. 80 lagun inguru bertaratuziren.
- Azaroaren 7a. “Osasun eskubideak bizitzaren amaieran” hitzaldi-solasaldia Izarrako Kultur Aretoan (Araba). 7 lagun bertaratu ziren.
- Azaroak 12 eta 26. AFAGIk (Gipuzkoako Alzheimerdun Pertsonen, Lagunen eta Senideen Elkarte) Donostian duen egoitzan antolatutako hitzaldi-tailerra. Bideokonferentziaz ere zabaldu zen hitzaldia. 25 lagun inguru bertaratu ziren.
- Azaroaren 13an. “Duintasunez hiltzeko eskubidea. Aurretiazko Borondateen Dokumentua” Aguraingo erretiratuen elkartearen (Araba), Arabako Foru Aldundiaren Gelak+55 programaren barruan.
- Azaroaren 19an. “Osasun-eskubideak bizitzaren amaieran” hitzaldi-solasaldia Aramaioko (Araba) Kultur Etxean, Arabako Foru Aldundiaren Gelak+55 programaren barruan. 25 lagun inguru bertaratu ziren.
- Azaroak 18 eta 25. Bergarako San Joxepe Jubilatu eta Pentsionisten elkartearen zentroan “Bizi-testamentua nola egin” hitzaldi-tailerra. 70 lagun inguru izan ziren bi saioetan.



- Abenduaren 3a. “Osasun-eskubideak bizitzaren amaieran” hitzaldia eta mahai-ingurua Zigoitiko (Araba) zentro soziokulturalean, Arabako Foru Aldundiaren Gelak+55 programaren barruan.

Atal honetan, aipatzekoa da parte hartu izana Arabako Foru Aldundiak lehen aldiz eskaini zuen lehiaketa publikoan, lurralde horretako udalerrri gehienetan eskaintzen den “Ikasgelak +55” kultur programaren barruko jardueren urteko plangintzaren barruan. Ekainaren 20an aurkeztu zen programa horretan parte hartzeko gure proposamena.

2.2.1.1 Hezkuntza-arloko jarduerak.

DMD-DHE Gipuzkoako zenbait bazkide UPV/EHUko Donostiako Psikologia Fakultateko irakasleekin harremanetan jarri ziren, egungo "hiltzeko prozesuaren kalitateari" buruzko ikerketa bat egiteko, eta kalitate hori neurtzeko indize orientagarri bat ezartzeko aukera aztertzeko, hasierako proposamen batean oinarrituta ([Txindoki indizea](#)). Hainbat bilera egin dira, eta 20 bat inkestatan oinarritutako landa-saiakuntza bat egin da. Ikerketak aurrera darrai.

2.2.1.2 "Heriotza duina eta ilustratua" erakusketa Basaurin.

DMD Catalunya-ren ekimen hau, heriotza duinaren gaiarekin zerikusia duten 34 ilustrazioen erakusketan oinarritutakoa, urtarilaren 8tik otsailaren 27ra arte egon zen ikusgai Basauriko *Marienea* Emakumeen Etxean, elkarte honen eta DMD-DHEren arteko elkarlanari esker (ikus [egitaraua](#)).

[Hemen](#) ikus daiteke egileek komentatutako ilustrazioen katalogoa.



Urtarrilaren 11n egin zuten inaugurazio ekitaldia, Concha Castellsen (DMD-DHE) eta Irene Roderoren (Emakume Zahar Feministen taldea) parte hartzearekin. Ondoren, Carmen Monreal DMD-DHE Gipuzkoako bazkidearen eskutik erakusketara bisita gidatua egin zen. 30 bat lagunek parte hartu zuten ekitaldian..

Erakusketa irekita egon zen bitartean. DMD-DHE Bizkaiako bazkideek lagundu zuten bisitariei harrera egiten.

Erakusketa osatzeko, Aurretiazko Borondateen Dokumentuaz (DVA) bi informazio-tailer egin ziren; baita bisita gidatu bat AVIFES elkarte (buruko osasun-arazoak dituzten pertsonen senideak) emakume-talde batek hala eskatuta, eta hitzaldi-solasaldi bat ere: "Heriotza ez ote da gai feminista bat?" gizonek eta emakumeek heriotzarekin lotutako gaiekin eta haien portaerarekin dituzten desberdintasunei buruz.



Hainbat hedabidek eman zuten erakusketaren berri:

- Deia egunkaria, "[Basauri recibe la muestra 'La Muerte, Digna e Ilustrada'](#)".
- Bidebieta hedabide lokala, [Marienea acoge una exposición en torno a la muerte digna con ilustraciones de jóvenes artistas](#)".
- Berria egunkaria, "[Heriotza, taburik gabe](#)".
- El Correo egunkaria, "[«La mujer reflexiona más sobre la muerte al cuidar a los allegados hasta el final»](#)".

2.2.1.3 Lanbide arloko jarduerak.

- Maiatzak 24. Miñaoko (Araba) Colisee egoitzako profesional soziosanitarioei “Bizitzaren amaierako eskubideak” hitzaldia. Egoitzako 6 langile bertaratu ziren.
- Urriak 23. DMD-DHE Bizkaiako kideek “Bizitzaren amaierari buruzko kontzeptuak eta eskubideak” hitzaldia eskaini zuten Ermuko Osasun Zentroan, eta ondoren osasun-arloko eta arlo soziosanitarioko langileekin eztabaida egon zen. 30 bat profesional bertaratu ziren.

2.2.2 Komunikabideetan agertzea (prentsan, irratan eta telebistan).

- Urtarrilak 21. DMD Arabako bazkide batek [idatzi](#) bat bidali zuen El Correoko “Cartas al director” atalera, egunkari horretako 2024/01/20ko artikulua bati erantzunez: “*La residencia de paliativos de Vitoria naufraga por el rechazo del Obispado a la eutanasia*”. Arreta aringarrian baliabide gehiago behar direla salatzen du gutunak, eta baliabide publikoetan inbertitu beharrean, baldintza onartezinekin baliabide pribatuekin estaltzearen alde egitea gaitzesten du. Urtarrilaren 28ko egunkariko edizioan argitaratu zen idatzia.
- Apirilak 8. El Salto online egunkarian Julen Goñik (DMD-DHE Bizkaiako bazkidea) “[La mentira de la objeción de conciencia](#)” artikulua argitaratu zuen, demokratikoki ezarritako arauen bidez definitutako zerbitzu publikoetan, osasun zerbitzu publikoa kasu, kontzientzia eragozpenaren egokitasuna zalantzan jarritz.
- Maiatzak 25. DMD-DHE Bizkaiako bi bazkidek “[Zaintza: heriotza eta politika feminista](#)” iritzi artikulua argitaratu zuten Berria egunkarian, mugimendu feministak heriotza onari ekarpena egiteko aukeren inguruan hausnartuz.
- Ekainak 23. LORE indarrean sartu zeneko 3. urteurrena dela-eta Berria egunkariak hainbat artikulua argitaratu ditu (ikus [Urtearen laburpena](#), atala). Horietako batean, ABDa erabiltzeari buru: “[Hiltzen ikasteko era» bada, eta laquntza ere bai](#)”, bertan Iñaki Olaizola eta Arantza Garaialde DMD-DHE Gipuzkoako bazkideek parte hartu zuten.
- Ekainak 25. Euskadiko RTVEko Telenorte 1 albistegian, [elkarriketa Rafael Sali](#) DMD-DHE Bizkaiako bazkideari, LOREren 3. urteurrenaren harira. (5:15etik 6:15era gutxi gorabehera)
- Ekainak 26. Rafael Sali elkarriketa Diario Vascon, “[«Oso eskubide beharrezkoa zen eta ikusten ari da urtetik urtera zabaltzen ari dela»](#)” (harpidetza behar da), LOREren aplikazioaz indarraldiko hiru urteetan. Artikulua moldaketa bat ikus daiteke [hemen](#).
- Irailak 12 “*Eutanasia, heriotza duina eta erabakitze eskubidea*” mahai-ingurua, DMD-DHE Euskadiko bi bazkideen eskutik, Aguraingo Osasun Mentalari buruzko XII. Jardunaldien barruan. Diario de Noticias de Álava egunkariak [jaso zuen albiste](#).
- Urriak 4. ETB1eko Egun On aktualitate saioan, DMD-DHE Bizkaiako bazkide baten (Julen Goñi) eta Euskadiko EBEB presidentearen elkarriketa (bideoa ez dago ikusgai EiTbren plataforman).
- Urriak 30. Julen Goñi Bizkaiko DMD-DHEko bazkideak idatzitako “[Pobrezia eta eutanasia](#)” artikulua argitaratu zuen Gara egunkariak, Kanadatik zabaldutako zenbait albisteren harira, zeinetan aditzera ematen den (frogarik gabe) eutanasiak egiten direla arrazoi sozioekonomikoengatik.
- Urriak 30. Heriotza Duinaren Nazioarteko Egunaren harira, [prentsa-ohar](#) bat bidali zitzaion Euskadiko zenbait komunikabideri, Euskadiko EBEBk eutanasiari buruz egindako 2023 urteko txostenari buruz [DMD-DHEk egindako balorazioarekin](#) batera.

Euskadiko Onda Cero irratiak komunikatu horren berri eman zuen urriaren 31n "[La Asociación 'Derecho a Morir Dignamente' reivindica la importancia de Ley de Eutanasia](#)" albistearekin.

- Azaroaren 2an. Radio Vitoriako *'Déjate Llevar'* saioan, Cristina Valverderi (DMD-DHE Arabako bazkidea) [elkarrizketa](#) egin zioten, Heriotza Duinaren Nazioarteko Eguna dela-eta. (36. minutuan hasten da, gutxi gorabehera)
- Azaroaren 2an. *Goiz Kronika asteburua* Euskadi Irratian, Iñaki Alegriari (DMD-DHE Gipuzkoako bazkidea) [elkarrizketa](#) Heriotza Duinaren Nazioarteko Eguna dela eta. (1h puntuan hasten da: 37 min., gutxi gorabehera)

2.2.3 Sare sozialetan eta online komunikabideetan agertzea.

AFDMDren berezko kanalez gain (ikusi <https://derechoamorir.org>), DMD-DHE Euskadik bere kanalak ere baditu, non heriotza eta heriotza duinari buruzko albiste garrantzitsuak zabaltzen eta iruzkintzen diren, baita dibulgazio-materiala zabaltzeko ere.

- [Facebook](#).
- Bluesky ([@dmd-dhe-euskadi.bsky.social](https://bsky.social/@dmd-dhe-euskadi)).
- X (lehenengo Twitter). Azaroan ekin zioten sare sozial horretatik Blueskyrako migrazioari. 2024ko amaieratik, DMD-DHE ez dago Xn.
- [YouTube](#). Bizkaiko DMDko bazkide baten kanal pertsonala, eutanasiari eta beste gai batzuei buruzko hausnarketekin.

Gainera, hiru lurraldeetan Whatsapp taldeak errutinaz erabiltzen dira albisteak zabaltzeko eta talde bakoitzaren barne komunikaziorako, baita zuzendaritza batzordearenak ere.

2.2.4 Idatzizko eta ikus-entzunezko materiala prestatzea eta zabaltzea.

DMD-DHE Euskadik antolatutako ekitaldi guztietan, informazio-liburuxkak banatzen dira gaztelaniaz eta euskaraz: a) [gure elkarteari](#) eta haren helburuei buruz, b) ABDA zer da eta nola egin behar da ([gaztelania](#), [euskera](#)), c) [Eutanasiari eta LOREri](#) buruz. Ekitaldi esanguratsu batzuetan AFDMDren aldizkariaren ale batzuk ere ematen dira ([91](#) eta [92](#) zenbakiak, 2024an argitaratuak).

Gainera, Bilbon Liburutegi Zentralarekin AFDMDren aldizkariaren doako harpidetza egiteko akordioa lortu da, argitalpenen katalogoan inskribatzeko eta udal-barrutietako liburutegietara banatzeko aukera ematen duena. Gasteizen, AFDMDren aldizkariaren ale bakoitza banatzen da hiriko 13 gizarte-etxeetako helduen liburutegietara. Donostian ere banatzen da aldizkaria hiriko liburutegietan.

ABDari buruzko tailer praktiko ugarietan, horietako asko Gipuzkoan, DMD-DHEk proposatzen dituen ABDaren ereduak banatu ohi dira ([euskera](#), [gaztelania](#), eguneratutako ereduak).

2.2.5 Harremanak beste erakunde eta elkarte batzuekin.

Jarduera honen helburua da gure elkartearen jarduerak ezagutaraztea eta haietan interesa izan dezaketen beste erakunde batzuei eskaintzea, baita haiekin lankidetzatza-loturak ezartzea ere.

- 2024an, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak zirela-eta, eta herritar askori osasun-arreta hondatze-bidean daudela iritzi partekatuak bultzatuta, talde politiko, elkarte eta herritar-talde askok jarduera ugari antolatu zituzten osasun-sistema publikoaren hobekuntza defendatzeko. DMD-DHE elkarte herritarra izanik, jarduera hauetako askotan bat egin eta parte hartu zuen.

Otsailaren erdialdean, Osasunaren Aldeko Euskal Foroak adierazpen bat zabaldu zuen, Euskadiko osasun-arretaren alderdi kezkagarrien berri emateko, eta irtenbideak eskatzeko. Adierazpen hori babestu zuten elkartearen artean egon zen DMD-DHE Euskadi. Gainera, DMD-DHEko ordezkariak Foroaren bileretan parte hartu ohi dute urtean zehar.

Martxoaren 16an, DMD-DHEko bazkide askok Euskadiko osasun publikoaren aldeko herri-plataformek (OPA Herri Plataformak) hiru hiriburuetan deitutako manifestazioak babestu zituzten eta, batzuek, urtean zehar, plataforma horien lan-bileretan hartu dute parte.

Apirilean, DMD-DHE Arabak manifestu bat zabaldu zuen herritarren plataforma horien aldarrikapenak babesteko eta OPA Gasteiz plataformak bere webgunean argitaratu zuen eta DMD-DHE Arabako bi bazkidek parte hartu zuten kontzientziazio bideo bat ere zabaldu zuen.

- Abuztuan, DMD-DHEk gonbidapena jaso zuen Euskadiko Zainketa Aringarrien Elkartetik (Arinduz), beste kolektibo batzuekin batera, Estatuko Zainketa Aringarrien Lege bat aldarrikatzeko helburuarekin, ekimen legegile bat martxan jartzeko.

DMD-DHEk erabaki zuen, Zuzendaritza Batzordearen erabakiz, ekimenean aktiboki ez parte hartzea, baliabide propioen faltagatik eta Zainketa Aringarrien arloa dagoeneko legear nahikoa garatuta eta hainbat plan estrategikotan jasota dagoela iritzita, eta araudi horiek betetzea eta beharrezko baliabideak erabiltzea dela benetan behar dena.

Kontuan hartu zen DMD-DHEk dibulgazio-ekintzetan beti hartzen dituela kontuan eta aipatzen dituela zainketa aringarriak bizitzaren amaierako osasun-eskubideen parte gisa, eta horiek garatzearen alde dagoela, nahiz eta Elkaratearen helburuak norberaren bizitzaren gaineko autonomia pertsonala gauzatzearen errespetuan zentratu.

Gonbidapena eskertu eta etorkizunean elkarreak bideratu moduko proiektuetan kolaboratzeko aukera eskaini zitzaion.


Azaroan, erakunde horren gonbidapena jaso zen, interesatutako DMD-DHEko bazkideak abenduaren 12an Bilboko Deustuko Unibertsitatean egin zen Arinduz-eko XX. Jardunaldira joan zitezen, "Pertsona Bidaia da" izenburupean, dementzia aurreratuko zainketa aringarrietan zentratuta.

2.3 Elkartegintza.


Barne-komunikazioa eta bazkideen parte-hartzea sustatzea da jarduera honen helburua, Baita herritarrek elkartera etortzen animatzea eta Elkartearen kudeaketa eraginkorra, demokratikoa eta gardena egitea ere.

2.3.1 Bazkideen bilakaera.

	Bazkide kopurua 31/12/2023	2024		Bazkide kopurua 31/12/2024
		altak	bajak	
ARABA	102	11	4	109
BIZKAIA	222	23	16	229
GIPUZKOA	144	9	2	151
GUZTIRA	468	43	22	489



Bazkideen urteko serie historikoa



Alta eta baje urteko serie historikoa

2024 izan da bazkide berri gehien izan dituen urtea LORE indarrean sartu zenetik (2021), baina baje kopurua ere nahiko handia izan da (ez dago zergatien xehetasunik).

2.3.2 Bazkideen parte hartzea.

2.3.2.1 Zuzendaritza Batzordearen bilerak eta Batzarak.

- 2024an DMD-DHE Euskadiko Zuzendaritza Batzordea 5 aldiz bildu zen, horietako bi presentzialak (otsailaren 1ean Donostian eta irailaren 10ean Gasteizen) eta gainontzekoak bideokonferentzia bidez. Bilera horietan Elkartearen hiru jarduera-esparruetan epe labur eta ertainerako jarduerak adosten dira, eta bizitzaren amaierarekin lotutako alderdi eztabaidagarrienei buruz eztabaidatzen da, erkidegoko talde gisa erakundeen, komunikabideen aurrean jarrera bateratua adosten saiatuz, AFDMDren bileretan azaltzeko.
- Martxoaren 13an, AFDMDren Zuzendaritza Batzordeak bilera bat (bideokonferentzia) deitu zuen erkidegoetako Zuzendaritza Batzordeekin eta tokiko taldeekin, eta Euskadiko Zuzendaritza Batzordeko kideek hartu zuten parte. Gainera, urte osoan zehar, erkidegoetako Batzordeetako kideen eta AFDMDko Batzordearen arteko ohiko komunikazioa bideratzen da, Slack elkarlanerako aplikazioan kanal espezifiko baten bidez.
- Ekainaren 8an, AFDMDko bazkideen Ohiko Batzar Orokorra egin zen (bideokonferentzia bidez), eta DMD-DHE Euskadiko zenbait bazkidek hartu zuten parte.
- Irailaren 24an, DMD-DHE Euskadiko bazkideen Ohiko Batzar Nagusia egin zen, Deustuko egoitzan. 33 bazkide bertaratu ziren (bat ordezkari bidez).

Zuzendaritza Batzordearen eta Batzarren bilera guztien akta dago.

2.3.2.2 Gai espezifikoei buruzko lantaldeak.

AFDMDk estatu mailako lantalde batzuk antolatu ditu DMD-DHE Euskadik parte hartu duen gai jakin batzuk jorratzeko:

- 2023ko azken hilabeteetan eta 2024ko lehen hiruhilekoan, AFDMDko prestakuntza-taldea lanean aritu zen estatu osoko bazkideei zuzendutako “*DMDko aktibistentzako oinarritzko prestakuntza*” izeneko on-line ikastaro bat abian jartzeko. DMD-DHE Bizkaiko bazkide batek formazio taldearen lanean parte hartu zuen.

Ikastaroa hiru saiotan eman zen martxoan zehar, eta hiru lurraldeetako bazkideek parte hartu zuten.

- Urtean zehar, AFDMDk, DMD-DHE Euskadirekin lankidetzan, beste online ikastaro bat antolatu zuen (Moodle plataformaren bidez), espezializatuagoa, “[Eutanasia arautzeko 3/21 Legeari buruzko oinarritzko prestakuntza \(LORE\)](#)” izeneko, estatuko bazkide guztiei zuzendua. Ikastaro hau DMD-DHEk UPV/EHUrekin elkarlanean 2022-2023an abian jarri zuen ikastaro pilotuaren antolakuntza osora zabaldu zen. Ikastaroa irailetik abendura bitartean eman zen.
- Bizkaiko bazkide batek AFDMD aldizkariaren erredakzio-batzordean parte hartu du urte osoan. Bi bilera egin ziren bideokonferentzia bidez, aldizkariaren zenbakiak prestatzeko. Gainera, ohiko harremana izan dute Slack-en kanal espezifiko baten bidez. DMD-DHEtik aldizkarian landu beharreko gaien proposamen batzuk egin zituzten.
- Martxoan, AFDMDk Kataluniako kazetari batekin (Victor Cabo) lankidetzaproiektu bat egitea proposatu zien talde autonomiko eta tokiko talde guztiei, “heriotza duinari” buruzko erreportaje bat egiteko. Erreportajea, urtean zehar hiltzeko laguntza-eskaera egin zuten pertsonen eta haien familia-ingurunearen bizipenak kontatu ziren, haien borondatezko parte-hartzearekin, eta betiere haien eskubideen eta duintasunaren errespetua lehenetsiz. Euskadin ez zen testigantzarik jasotzea lortu.

Gainera, 2024an, noizbehinkako barne-lantalde batzuk eratu dira DMD-DHE Euskadin, zeregin jakin batzuk egiteko:

- Urtarrilean, Gipuzkoako eta Arabako bazkideei proposatu zitzairen urtean zehar osasun-zentroetan landa-azterketa bat egitea, erregistratutako ABDak zer baldintzatan dauden zehazteko eta kontsultatzeko, bai Osasun-karpeta pertsonalean (OK), bai Historia Klinikokoan (HK). Arrazoia izan zen ABDa eskuragarria ez zen kasu batzuk ezagutzea. Susmoa da 2018a baino lehen egindakoak ez direla automatikoki islatu ez historia klinikokoan, ez OKn.

Memoria hau egin den datan ez da ezagutzen prospekzioaren emaitza.

- Urtarrilean, Arabako bi bazkidek Nafarroan, Katalunian eta Asturiasen dagoeneko martxan dauden [Heriotza Duinaren Behatokiei \(HDB\)](#) buruzko informazioa biltzeko lana egin zuten (baita Kanarietan proposatutako beste batena ere), Euskadin HDB bat sortzeko etorkizuneko proposamena prestatzeko, Eusko Legebiltzarrari, aldundiei eta alderdi politikoei zuzenduta.
- Urtean zehar, hiru lurraldeetako zenbait bazkidek bilerak egin dituzte DMD-DHEren (euskara, gaztelania) ABD ereduaren testua hobetzeko asmoz, sinplifikatuz ([euskera](#), [gaztelania](#)) eta egoera jakin batzuetan eutanasia bidez hiltzeko laguntza jasotzeko nahiari sarrera hobeto arrazoituta utziz.

2.3.2.3 Bazkideen topaketak.

- Apirilaren 18an eta 19an “Bizitza duina, heriotza duina” IV. Jardunaldiak egin ziren Oviedon, “Eutanasia, argiak eta itzalak” gaiari buruz ([ikus bideoak](#)). AFDMD eta DMD Asturiasek antolatu zituzten, Oviedoko Unibertsitatearekin lankidetzan, elkartearen ibilbidea, lortutako eskubideak eta bete gabeko erronkak aztertzeko. DMD-DHEren bi bazkide bertan izan ziren.
- Urriaren 25etik 27ra, AFDMDren urteroko topaketa egin zen Madrilen, AFDMDren Bulego Teknikoak eta Zuzendaritza Batzordeak antolatuta. Bilera horretan, erkidegoetako eta tokiko talde guztietako kideek gaurkotasuneko gaiei eta Elkartearen funtzionamenduari buruz eztabaidatu zuten. DMD-DHE Euskadiren aldetik bi bazkidek hartu zuten parte.

Hauek dira 2024an landu ziren gaiak:

- Barne-eztabaida bat hastea Elkartearen jarrera zehazteko buru-nahasmenduen kasuetan eutanasia-eskaeren erantzuna zein izan behar den (zalantzan daude, Konstituzio Auzitegiak 2023an legea baliozkotu ondoren). Onartzen da kasu horiek berezko konplexutasuna dutela, baina ezin dira LOREtik kanpo utzi eskatutako baldintzak betetzen badituzte.
- Barne-eztabaida bat hastea Elkartearen jarrera zehazteko suizidio lagundu eta argitsuko eskubideari buruz “bizitza burutua” sentimendu kasuetan. Gomendatzen da eztabaidarekin jarraitzea eta gaia horri espreski zuzendutako hitzaldi zehatzak ez egitea diskurtsoa definitu arte.
- Elkartearen Plan Estrategikoa berrikustea. Administrazio publiko bakoitzari egindako eskakizunak argitzea proposatu zen, baita Elkarrekin LOREn zehaztutako prozeduraren “aurretiazko baliozkotzearen” (EBEB) inguruan jarrera adostea ere.
- AFDMDren ABDren eredu berrikustea. Lan taldearekin Slack plataforman jarraitzea erabaki da.
- Estatu osoko ekitaldien plan bat aurkeztea, Elkartearen sorreraren 40. urteurrena dela-eta (abenduen 13ean da efemeridea). Une horretan Euskadin ez zegoen epe laburrera aurreikusitako ekintzarik.
- DMD-DHE Bizkaiako bazkide batek, 2023an Kantabriako talde lokala martxan jartzen lagundu zuenak, elkarlanarekin jarraitu zuen 2024an (bilera martxoaren 14an). Era berean parte hartu zuen CEEMek (Medikuntzako Ikasleen Estatu Kontseiluak) eta Kantabriako Unibertsitateak antolatutako Hezkuntza Medikoaren XVI. Kongresuan eren. Kongresu hori Santanderren egin zen irailean, eta mahai-inguruetako batean LORE eta ABDri buruz eztabaidatu zen.

Gainera, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako taldeek, aurreko urteetan bezala, lurraldeko bertako bazkideen aldizkako bilerekin jarraitu zuten. Bilera horiek presentzialak izaten dira normalean, eta taldearen antolakuntza-alderdiak lantzen dira, epe laburreko jarduerak planifikatzen dira, Batzordearen bileretan hitz egiten diren gaien berri ematen da, heriotza duinari buruzko gaurkotasuneko gaiei buruz eztabaidatzen da, eta, kasu batzuetan, gai sakonagoi buruzko ponentziak aurkezten dira, bazkideen eskutik. Bilera hauek ere jende guztiarentzat irekita daude eta Elkarrekin antolatutako ekitaldietan iragartzen dira. Bazkide ez diren pertsonak etortzen direnean, haien zalantzak eta kezak argitzen dira bileran, eta DMD-DHE zer den eta haren filosofia eta helburuak azaltzen zaizkie.

- DMD-DHE Araba hileko azken asteazkenean bildu ohi da, 18:30ean, Gasteizko Barrenkale elkartean (Aiztogile kalea, 61-behea, sarrera Santa Ana kantoitik). 2024an 9 bilera egin ziren, denak presentzialak, eta 5 eta 15 bazkide artean bertaratu ziren.

- DMD-DHE Bizkaia hileko lehen asteazkenean bildu ohi da, 18:00etan, Bilboko Araba kaleko 6. zenbakiko lokalean. 2024an 6 topaketa egin ziren, denak presentzialak.
- DMD-DHE Gipuzkoa hileko bigarren asteazkenean bildu ohi da, 18:30etik 20:00etara gutxi gorabehera, Donostiako Gure Bizitza elkartearen lokalean. 2024an 10 bilera planifikatu ziren (horietako bi bertan behera geratu ziren hainbat arrazoiengatik).

2.3.3 Bazkideen prestakuntza eta informazioa ematea.

DMD-DHE Euskadik (AFDMDren Bulego Teknikoaren laguntzarekin) aldizka jakinarazten die bazkideei, posta elektroniko bidez, heriotza duinari buruzko gaurkotasun-albiste garrantzitsuak, hainbat formatutan:

- DMD aldizkariaren edizioa. 2024an 2 zenbaki argitaratu ziren ([91 zbk. maiatzean](#) y [92 zbk. azaroan](#)). Eskaera egin duten bazkideek paperean jasotzen dute postaz. Formatu digitalean ere deskarga daiteke AFDMDren web orrian (<https://derechoamorir.org/revista/>).
- Informazio-buletinak (2024an gutxienez 12 zabaldu ziren), estatu osoko albiste garrantzitsuekin: LOREren aplikazioaren segimendua, argitaratutako datuak, gaizki artatutako eutanasia-eskaeren kasuak, Elkarateak antolatutako ekitaldiak, heriotza duinari buruzko ikus-entzunezko ekoizpen berriak, Elkaratearen 40. urteurrenaren prestaketa eta nazioarteko ekitaldi garrantzitsuak.
- “Nazioarteko prentsa-aldizkaria”, artikulua interesgarriekin eta nazioarteko gaurkotasunaren azterketarekin. 2022tik aurrera, ez da posta elektroniko bidez iragartzen. Buletin berri bakoitza Slack lankidetza-tresnaren bidez iragartzen da, eta AFDMDren webgunean argitaratzen da (<https://derechoamorir.org/category/noticias-internacional/>). 2024an 11 bulletin argitaratu ziren.

Atal honetan aipatu behar dira, halaber, hiru lurraldeetan gaitutako Whatsapp taldeak, lurralde bakoitzean talde horietan sartzea eskatu duten bazkideekin informazioa trukatzeko erabiltzen direnak. Baita Slack elkarlaneko aplikazioa ere (AFDMDk kudeatua). Estatu osoko bazkide ekintzaileen arteko komunikazioa ahalbidetzen du, eta DMD-DHE Euskadiko zenbait bazkidek parte hartzen dute.

2.3.4 Arreta pertsonalizatua.

Zerbitzu honen bidez, DMD-DHEra jotzen duten herritarren eta bazkideen galderei erantzuten zaie. Elkarteari berari eta haren helburuei buruzko informazioa bilatu, heriotza duinarekin lotutako alderdiak eta bizitzaren amaierako prozesuan dituzten eskubideez gain, asko dira ABDA egin eta izapidetzeari buruz eta LOREren esparruan eutanasia-eskaeren inguruan.

2024an, hiltzeko laguntza ematearekin lotutako informazioa, aholkularitza edo laguntza eskatu zuten gaixoen edo haien senideen 47 kasu artatu dira gutxienez elkartean.

Kasuistika askotarikoa da: gaixotasun larria dutenak, edo patologia aipagarriarik gabe heriotza duinari buruz argi eta garbi hitz egin nahi dutenak, edo heriotza planifikatu nahi duten pertsonak, baita hiltzeko laguntza nola eskatu jakin nahi dutenak edo jada eskatu duten eta izapidetzean edo jasotzen duten arretan zailtasunak dituztenak ere.

Kontsulta gehienak gaixotasun degeneratibo aurreratuek (Alzheimer, Parkinson, ELA, demenziak), minbiziak, pluripatologiak eta bizi-nekeak, eta hain ohikoak ez diren beste batzuek, dute abiapuntu. Gutxienez 6 kasutan arrazoiak buruko gaixotasun bat izan zen. Gaixotasun larri atzeraezina zuten adingabeen kasuan jarduteko aukerei buruzko bi kontsulta jaso ziren.

Kasu askotan, eskatutako informazioa eman ondoren, ez zen berriro eskatzaileekin harremanetan jarraitu. Beste kasu batzuetan, konplexutasunen bat zutenekin bereziki, jarraipena

egin zitzaien (interesdunaren edo senideen ekimenez), batzuetan kontsultak telefonoz dira, posta elektronikoarekin osatuta, baina aurrez aurre ere erantzuten da (batez ere bazkideen kasuan). Kasuren batean, pertsonaren etxean edo ospitaleratuta zegoen ospitalean ere eman zen arreta.

Horrez gain, telefono bidezko kontsulta asko, eta aurrez aurreko batzuk ere, lotuta daude ABDa egiteko edo eguneratzeko informazioa eta laguntza eskaerekin.

Oro har, ez zen arazo garrantzitsurik hauteman, kasu gutxi batzuetan izan ezik:

- Kasu bat, zeinean pertsona hil egin baitzen gaixotasunak aurrera egin zuelako, hiltzeko laguntza jasotzeko zuen nahia bete gabe, aukera horri buruzko informazio osagabea eta berantiarra eman baitzuten artatu zuten profesionalak.
- Bi kasu non profesionalak pertsonaren eutanasia-eskaera aintzat hartu ez baitzuen, une horretan ordezeko tratamendu berri bat proposatu zuen bitartean.
- Familiaren iritziz, arreta profesional eskasa izan zuen beste kasu bat: pertsona hori egoitza batean hil zen, sedatuta.
- ABDa eguneratu nahi izan zuten bi pertsonaren kasuak, non egoera jakin batzuetan eutansiara jotzeko nahia sartu nahi izan zutenean haien gaitasuna zalantzan jarri baitzen. Kasuetako batean, notarioaren aurrean, gaitasunari buruzko mediku-ziurtagiria eskatu zioten.

Gutxienez hiru kasutan jakin zen eutanasia eskatzeko prozesua ezustekorik gabe egin zela. Beste kasu batzuetan, pertsona lasaigarriak emanda hil zen, eta ez dakigu ziur eutanasia eskatu zuen ala ez.

Hiru lurraldeetan arreta pertsonalizatuko zerbitzua ematen duten taldeek lortutako esperientziatik ondorio batzuk atera daitezke:

- Pertsonen abegikortasun, errespetu eta konfidentzialtasun giroan beren egoerari heltzeko espazio eta denbora bat eskaintzeak duen garrantzia, eskura dagoen informazio guztia zintzoki eta aurreiritzirik gabe eskainiz.
- Artatutako pertsonen eta haien ingurukoek sentitzen duten gogobetetasuna eta esker ona haien egoeraz arduratzen diren osasun-profesionalak hartzen eta errespetatzen dituztenean; eta, aldiz, sufrimendua eta haserrea, tratatu txar instituzionaltzat jotzen ditugun egoerak sortzen direnean (haien borondateari ez ikusiarena egitea, informazio partziala ematea, haien gaitasuna zalantzan jartzea, beste tratamendu batzuekiko presioa egitea, arreta atzeratzea, etab.).

Otsailaren 13an, aurrez aurreko bilera bat egin zen Bilbon, zerbitzu horretan parte hartzen duten hiru lurraldeetako bazkideen artean, jasotako kontsulten datu-bilketa sistematizatzeko eta, hala, aztertutako kasuen problematikari buruzko azterketa, hausnarketa eta ondorioak errazago lortzeko. Dokumentu egituratuaren hasierako eredu bat proposatu zen, lurraldeen artean desberdin erabili zena, baina 2025ean bateratzea eta osatzen jarraitzea espero da.

2.3.5 Zuzendaritza Batzordearen osaera.

2024an ez da aldaketarik egon DMD-DHE Euskadiko Zuzendaritza Batzordea osatzen duten pertsonetan (ikus Oharra beheago). 2024/12/31n, Batzordearen osaera honako hau zen:

- Presidente, Concha Castells Carrillo (Bizkaia).
- Presidenteordea (hutsik).
- Idazkaria, Cristina Valverde Ibañez (Araba).
- Diruzaina, Carlos Burón Herrera (Araba).
- Mahaikideak:
 - Marta Barandiaran Forcada (Gipuzkoa).
 - Arantza Garaialde Maiztegi (Gipuzkoa).
 - Juanxo Dominguez Lopez (Gipuzkoa).
 - Iñaki Alegria Loinaz (Gipuzkoa).
 - Rafael Sal Fernandez (Bizkaia).
 - Julen Goñi Salvador (Bizkaia).
 - Elena Gutiérrez Alonso (Bizkaia).
 - Esperanza Urreta Espín (Araba).
 - Mario Unamuno Plazaola (Araba).
 - Mónica Santolaya del Val (Araba).

Oharra: 2024 DMD-DHEren Estatutuetan Zuzendaritza Batzordeko karguak berritzeko aurreikusitako lau urteko aldiko azkena izan zen. 2025ean berritu beharko da Ohiko Batzarrean (azken berritzea 2021ean egin zen). Batzordeko kide batzuek dagoeneko adierazi dute 2024an Batzar horretan kargua uzteko nahia (zehazki, presidenteak, idazkariak eta diruzainak).

2.3.6 Inbentarioa.

- 2024an ez da ekipamendu berririk erosi. Birziklatzeko, Bizkaiko taldeak 2020ra arte erabili zuen ordenagailua entregatu zen (egun, talde horrek gaur egun erabiltzen duen ordenagailua erosi zen). 2024/12/31n, hau zen Elkartearen ekipamenduaren eta materialaren inbentarioa:
- Lenovo V130-15IGM ordenagailu eramangarria, 81HL004YS modeloa (Intel Celeron N4000/8GB/SSD 256 GB/15,6" /Windows 10), Kasperski Internet Security antibirusa (erabiltzaile bat) eta Logitech m100 sagua. Bizkaiko taldeak erabiliak.
- Toshiba Satellite Pro R50-E-13X ordenagailu eramangarria, Intel Core i3-7020U/8GB/256GB. Gipuzkoako taldeak erabilia.
- AHTEC 2009 ordenagailua. Arabako taldeak erabiltzen.
- HP ordenagailuaren sistema berreskuratzeko UTLTRA 3.0 32GB flash memoria. Bizkaiko taldeak erabilia.
- ISY IP-1100 laser-aurkezlea, haririk gabea, beltza. Urruneko aurkezpenak aurreratzeko/atzeratzeko eta pantaila laser erakusle bidez seinaltatzeko aukera ematen du. Arabako taldeak erabilia.
- Xiaomi Redmi 9C telefono mugikorra (6,5" /4 GB-ko memoria / 64 GB-ko biltegitratzea). Bizkaiko taldeak erabilia. DMD-DHE Euskadiren arretarako telefonoa ere bada.
- Telefono mugikorra Gipuzkoako taldearen arreta pertsonalizaturako.
- Honor 90 Lite 5G telefono mugikorra (6,7" /memoria 8GB/biltegitratzea 256 GB). Arabako taldeak arreta pertsonalizatua emateko erabilia.
- Melanina zuriko armairua, 45 cm zabal, 42 cm sakon, 78 cm garai, barne-apalarekin eta giltzadun atearekin. DMD-DHEren Deustuko egoitzan dago.

3 2024ko txosten ekonomikoa.

2018/05/05eko Batzar Orokorrean hartutako erabakiaren arabera, DMD-DHE Euskadiren kudeaketa ekonomikoa AFDMD federalaren Kutxa Komunaren ereduan txertatzen da. Eredu horretan, DMD Euskadiren Bulego Teknikoak kudeatzen ditu DMD-DHE Euskadiren diru-sarrera eta gastu guztiak, eta kontu komun federal bati eragiten diote, gainerako autonomia-erkidegoetako taldeetakoekin bat eginez. Hala, autonomia-erkidegoen administrazio-kudeaketa sinplifikatzen da, eta eraginkortasuna hobetzen da baliabide federalen erabilerarekin.

Kutxa Komunaren ereduak esan nahi du DMD-DHE Euskadiren kontabilitateak Euskadi mailan elkartearen jardueraren gastu zuzen eskusiboak islatzen dituela, bai eta haren funtzionamendurako beharrezkoak diren AFDMD gastu komun zati eratorriak ere (profesionalen soldatak, webgunearen mantenua, aldizkaria, etab.).

Bestalde, DMD-DHE Euskadik bere kontuaren titularra izaten jarraitzen du (Laboral Kutxan), Kutxa Komunean sartu baino lehenagoko garaitik datorrena. Integrazioaren momentutik kontu honek ez du ia jarduerarik.

3.1 2024ko kontabilitate balantzea.

DMD-DHE Euskadiren titulartasuneko kontu propioaren balantzea honako hau izan da:

SALDOA 2023/12/31n	4.548,73 €	Helbideratu gabeko kuotek eragiten dituzte kontu horretako sarrerak, eta kontuaren mantentze-komisioak soilik eragiten ditu gastuak (helbideratutako kuotak eta jardueragatiko gastuak kontu komun federalean kargatzen dira).
SARRERAK 2024	250,00 €	
GASTUAK 2024	- 40,00 €	
SALDOA 2024/12/31n	4.758,73 €	

Bestalde, DMD-DHE Euskadiren 2024ko balantze ekonomiko globala, diru-sarrera eta gastu guztiak (zuzenekoak eta eratorritakoak) barne hartzen dituen, ondorengo taulan ikus daiteke.

2023ko datuekin alderatuta, diru-sarreraren igoera % 2,4koa izan zen, batez ere bazkideen kuoten ekarpenari esker, nahiz eta bazkideen igoera % 4,5ekoa izan. Fakturen edo dohaintzen bidez egindako ekintzengatik izandako diru-sarrerak pixka bat baino ez ziren handitu, baina atal honetan aipatu behar da abenduan egindako fakturretako bat 2025eko urtarrilean sartu zela, eta, beraz, urte horretako kontuetan kontabilizatuko dela. Guztira, sarrerak aurrekontuan jasotakoa baino apur bat handiagoak izan ziren.

Gutizko gastua %8,1 igo zen 2023koarekin alderatuta, aurrekontuan jasotakoa baino apur bat gehiago, batez ere gastu profesionalen igoeragatik eta jardueragatiko gastu handiagoagatik (hitzaldiak, Basauriko erakusketa eta bazkideen topaketa Madrilen batez ere).

Oro har, urteko kontabilitate balantzea positiboa izan zen.

	DIRU-SARRERAK (€)	GASTUAK (€)
DIRU-SARRERAK		
KUOTAK (Kutxa Komuna + DMD-DHE Euskadiren kontua)	27.467,00	
EKITALDIAK	1.473,45	
BANKUKO KONTZEPTUAK		
MANTENTZE-KOMISIOAK (DMD-DHE Euskadiren kontua)		40,00
KOMISIOAK (helbideratzeak, itzulketak, Kutxa Komuneko txartelak)		214,31
ZERGAK		
IAE EREDUA, 303 BEZ eredia, Valentziako AFDMD egoitzaren alokairua		25,70
GASTU PROFESIONALAK		
LAN-KONTRATUPEKO LANGILEAK (AFDMD)		16.055,30
ZERGA-AHOLKULARITZA		574,68
ZERBITZU INFORMATIKOAK (WEB)		326,49
POSTA-MEZULARITZAKO ZERBITZUAK		66,49
Bazkideak kudeatzeko aplikazio berria		299,06
MATERIAL KORPORATIBOEN GASTUAK		
ALDIZKARIAREN ARGITALPENA (Euskadirako aleak)		1.592,11
ABD LIBURUXKEN ERREPROGRAFIA		745,46
TRIPTIKOEN ERREPROGRAFIA		315,81
DOKUMENTUAK ETA IKUS-ENTZUNEZKO MATERIALA (BULEGO FEDERALA)		179,27
ESPASIOAREN ETA HORNIDURAREN GASTUAK		
OSALDE LOKALA (2024)		1.200,00
ARRETA PERTSONALIZATUKO TELEFONIA (Euskaltel)		562,60
BULEGOA ALOKATZEA (EGOITZA NAGUSIA)		1.731,62
ELEKTRIZITATEA + TELEFONIA + ERREPROG. EKIPOA (EGOITZA NAGUSIA)		621,43
BULEGOKO MATERIALAREN ETA EKIPIAMENDUAREN GASTUAK		
BULEGO-EKIPIAMENDUA (BULEGO FEDERALA)		144,75
ERREPROGRAFIA (BULEGO FEDERALA)		103,77
GASTUAK EGINTZAKA		
HITZALDIA (Eibar, urtarrilak 30)		50,37
BATZORDEAREN BILERARAKO JOAN-ETORRIAK (Donostia, otsailaren 1a)		152,09
ERAKUSKETA ARTISTIKOA BASAURIN (urtarrila-otsaila)		181,55
BILERA AT. JOAN-ETORRIAK PERTSONALIZATUA (Bilbon, otsailaren 13an)		46,22
BATZORDEAREN BILERARAKO JOAN-ETORRIAK (Gasteiz, irailaren 10a)		20,80
HITZALDIAREN JOAN-ETORRIAK (Agurain, irailak 12)		83,46
BAZKIDEEN TOPAKETA 2024 (Madril)		659,75
DMD JARDUNALDIAK 2024 (Oviedo)		954,35
BILERAK, AHOLKULARITZA, EKITALDIAK		157,66
WORLD FEDERATION-EN PARTE HARTZEA		24,30

GUZTIRA

28.940,45

27.133,39

Oharra:

- **Gorri** adierazitako kontzeptuek DMD-DHEri eratorritako gastuak adierazten dituzte, AFDMDren jardura komunak sortuak.
- **Beltz** adierazitako kontzeptuek DMD-DHE Euskadiren jardura eksklusiboak sortutako gastuak ordezkatzen dituzte.

3.2 2025erako aurrekontua.

Sarreraren atalean, bazkideen kuotetatik bakarrik datozela pentsatzen jarraituko dugu, izan ere, egintza eta/edo dohaintzen fakturazioagatiko sarrerak ezohikotzat eta noizbehinkakotzat jotzen dira. 2024an bazkideen hazkunde garbia (%4,5) aurreikusitakoa baino pixka bat handiagoa izan da (%4), eta 2021etik %4 inguruko egonkortzeko joera iradokitzen du. Igoera hori kontuan hartuta, eta 2024ko batez besteko kuota berarekin (57,4 €/bazkide), 28.600 € inguruko diru-sarrerak kalkula daitezke.

Gastuen atala 2024ko gastuetatik abiatuta kalkulatu da, honako aurreikuspen hauekin:

- DMD-DHE Euskadik 2025ean izango dituen gastu eskusiboak, material, ekipamendu eta hornidurei dagokienez, 2024koen antzekoak izango direla aurreikusten da, % 3 handituta (INEk 2025erako aurreikusitako KPIa % 2,5 da), Osaldeko lokalaren ekarpenari dagokionez izan ezik, hau 2023koaren berdina izatea aurreikusten baita.

Aurreikusitako jarduerengatiko gastuari dagokionez, 2024koa hartuko da erreferentziazat, 2025erako aurreikusten ez den "Heriotza Duina eta Ilustratua" erakusketako gastua kenduta, eta % 3 handituta. Gainera, 2025ean Heriotza Duinaren Nazioarteko Eguna Bilbon ospatzea aurreikusten da, Estatuko Heriotza Duinaren Behatokiaren topaketa bat antolatuz. Ekitaldi horretako gastua kalkulatzeko, 2022an egindakoa hartuko da erreferentziazat (antzeko ekitaldi bat antolatu zen azken urtea), % 9 handituta (2023an KPIa % 3,1 + 2024an % 2,9 + 2025ean % 3).

- AFDMDren jarduera komunak eragindako gastuei dagokienez (gastu profesionalak, ekipamendua eta hornidurak, DMD jardunaldiak eta bazkideen topaketa eta bazkideen kudeaketaren aplikazioa mantentzea), 2024koen antzekoak izan daitezke, % 3 handituta.

Aurreikuspen horiekin, eta lortutako kopuruak biribilduta, 2025erako zenbatetsitako diru-sarrerak eta gastuak honela geratu dira:

	DIRU-SARRERAK (€)	GASTUAK (€)
DIRU-SARRERAK		
KUOTAK (Kutxa Komuna + DMD-DHE Euskadiren kontua)	28.600,00	
ERATORRITAKO GASTU KOMUNAK		22.900,00
DMD-DHE EUSKADIREN GASTU ESKLUSIBOAK		
BANKUKO GASTUAK		40,00
GASTU PROFESIONALAK		0,00
MATERIAL KORPORATIBOAREN GASTUAK		2.700,00
ESPAZIO ETA HORNIDURA GASTUAK		1.900,00
BULEGOKO MATERIALAREN GASTUAK		200,00
DMD-DHE EUSKADIREN EKITALDIETAKO GASTUAK		1.000,00
GUZTIRA	28.600,00	28.740,00

Doitutako aurrekontua aurreikusten da, balantze negatibo txikiarekin. Alde hori Kutxa Komuneke geldikina orekatuko litzateke.



dmd dhe
DERECHO A MORIR DIGNAMENTE
DUINTASUNEZ HILTZEKO ESKUBIDEA
E U S K A D I

✉ C/ Araba, 6 semisótano, 48014, Bilbao

☎ 635 738 131

@ dmdeuskadi@derechoamorrir.org

🌐 www.derechoamorrir.org

www.derechoamorrir.org/dmd-euskadi